

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

Berrito atzeraldia etorri den honetan, etorkizunerako perspektibak

Inoizko langabeziarik handienetakoa

Prestaziorik kobratzen ez duten langabeen kopurua % 135 igo da, krisia hasi zenetik

Munduko ekonomiaren egoera eta perspektibak 2012rako

Lan eta negozioazio kolektiboaren erreformaren balorazioa

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

	DATUA	ERREFERENTZI ALDIA	12 HIL. LEHENAGO
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA (**)			
JARDUERA TASA (%)	75,6	2011KO IV. HIRUHILEKOA	74,4
JARDUERA TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	77,0	2011KO III. HIRUHILEKOA	77,2
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	1.180.400	2011KO IV. HIRUHILEKOA	1.201.800
SOLDATAKO BIZTANLERIA	981.500	2011KO IV. HIRUHILEKOA	1.014.400
ALDI BATERAKO TASA (%)	22,8	2011KO IV. HIRUHILEKOA	23
ALDI BATERAKO TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	14,4	2011KO III. HIRUHILEKOA	14,4
BIZTANLERIA LANGABETUA	175.900	2011KO IV. HIRUHILEKOA	150.300
LANGABEZI TASA (%)	14,2	2011KO IV. HIRUHILEKOA	13,2
LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	11,2	2011KO III. HIRUHILEKOA	11,6
GAZTEEN LANGABEZI TASA (%)	35,5	2011KO IV. HIRUHILEKOA	30
GAZTEEN LANGABEZI TASA 27-EBan (%)	20,7	2011KO III. HIRUHILEKOA	20,2
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA (%)	15,4	2011KO IV. HIRUHILEKOA	14,6
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA 27-EBan (%)	12,0	2011KO III. HIRUHILEKOA	12,9
SINATURIKO KONTRATUAK	944.872	2011KO URTARRILA-ABENDUA	924.588
KONTRATATU MUGAGABEAK	58.365	2011KO URTARRILA-ABENDUA	64.414
ENPLEGU ERREGULAZIOA			
ONARTURIKO FITXAK	1.997	2011KO URTARRILA-ABENDUA	2.430
ERAGINDAKO LANGILEAK	27.638	2011KO URTARRILA-ABENDUA	42.444
LAN ISTRIPUAK			
ISTRIPUAK GUZTIRA	34.012	2011KO URTARRILA-ABENDUA	38.111
HILDAKO PERTSONAK	78	2011KO URTARRILA-ABENDUA	80
ESKAINNTZA ETA ESKARIA			
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEN (%ALD.)	-2,4	2011KO ABENDUA	1,0
BPGD EAEN (%ALD.)	0,2	2011KO IV. HIRUHILEKOA	0,8
BPGD NAFARROAN (%ALD.)	0,8	2011KO IV. HIRUHILEKOA	1,9
BPGD ESPAINIAR ESTATUAN (%ALD.)	0,3	2011KO IV. HIRUHILEKOA	0,7
BPGD 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	0,9	2011KO IV. HIRUHILEKOA	2,2
PREZIOAK			
URTEARTEKO KPIA ESPAINIAR ESTATUAN (% ALD.)	2,0	2012KO OTSAILA	3,6
URTEARTEKO KPIA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	2,9	2012KO URTARRILA	2,7
<p>* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da. Lan istripuen ataleko datuak EAEkoak dira. Azterketa hau bukatzean ez dugu Nafarroako urteko datuak ezagutzeko aukerarik izan</p> <p>** Enplegu eta langabeziko datuak, 16 eta 65 urte bitarteko adin tarteari dagozkie. Bestela, adin tartea zehaztuko da.</p> <p>Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea, Eurostat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, Instituto Navarro de Salud Laboral, Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de Estadística, ELAko Lan Osasun Alorra</p> <p>2012/03/05ean eguneraturiko informazioarekin</p>			



Aurkibidea

EGOERAREN AZTERKETA

1. Berriro atzeraldia etorri den honetan.....4
2. Enplegu galera Hego Euskal Herrian4
3. Enplegu-erregulazioko espedienteak6
4. Inolako diru-sarrerarik gabeko langabeak % 156 igo dira, krisia hasi zenetik6
5. Prezioen igoera.....7

MUNDUKO EKONOMIAREN EGOERA ETA PERSPEKTIBAK 2012

1. Enpleguaren mundu krisia9
2. Zalantzak eta arriskuak10
3. Politika ekonomikoaren erronkak..11

LEGE LABORALEN ETA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ERREFORMARI BURUZ

1. Erreformaren edukiak.....12
2. ELAren iritzia.....14
3. ELAren alternatiba16

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPGd	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEI	Nafarroako Estatistika Institutua
EIN	Estatistika Institutu Nazionala
BJA	Biztanle Jardueraren Azterketa

EGOERAREN A Z T E R K E T A

Sarrera

Egoera aztertzeko lan honetan (*) besteak beste, ekonomiaren zalantzazko bilakaera eta etorkizunerako perspektibak izan ditugu aztergai, eta, horrekin batera, langabeziaren bilakaera eta langabeek nozitzen duten babes-gabezia. Oraingoan, hileko puntako gaiak lege laboralaren eta negoziazio kolektiboaren erreformen balorazioa eta 2012an munduko ekonomiaren egoera eta perspektibak izango dira.

* Txosten hau 2012ko martxoaren 5an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da

1. Berrito atzeraldia etorri den honetan

2011ko Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundeari buruzko datuek beheranzko joera garbia jarri dute agerian. Berriz ere erori da, beraz, 2009an eta 2010ean gora egin ondoren.


Euskal Autonomia Erkidegoaren BPGren urte arteko hazkundea, zehazki, % 0,2 izan da 2011ko azken hiruhilekoan, eta haren eragina ere agerian dago ekonomiak iazko urritik abendura bitarte izan duen bilakaeran, % 0,2 uzurtu baita.

Nafarroako Hiru Hilean Behingo Kontabilitatearen datuen arabera, 2011ko laugarren hiruhilekoan, urte arteko BPGk % 0,8 puntu egin du gora, iazkoan izandako 1,4 igoeraren aurrean; horrek esan nahi du BPG beheranzko joeran dagoela. Hiruhilekoen arteko bilakaerari dagokionez, erorketa -0,3 izan da.

Barne Produktu Gordina 2012ko lehen hiruhilekoan berriz ere uzurtzen bada, berrito atzeraldian egongo gara.

Espainiar Estatuaren hiruhilekoen arteko hazkundea ere negatiboa da; -% 0,3, hain zuzen. 2011ko laugarren hiruhilekoan, urte arteko % 0,3ko hazkundea izan du; baina aurreko hiruhilekoaren aldean, 5 hamarreko gutxiago hazi da.

Merkatuko prezioen arabeko BPG, urte arteko hazkunde tasak (%). 27-EB, 2010-2011



Iturriak: Eurostat, Eustat, IEN, INE

Europako ekonomia % 0,3 uzurtu zen iazko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiru hilabeteen aldean. Aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta, hazkundea % 0,9 izan zen. Greziak, Portugalek, Italiak, Holandak eta Belgikak bi hiruhileko daramatzate hazkunde negatiboan, eta Diru Batasuneko 17 herrialdeen erdiek hazkundetas negatiboak dituzte.

BPG uzurtu da, barne-eskariak behera egin duelako, langabeziak gora egin duelako (Espainiar Estatuan ia % 23 da, eta, Hego Euskal Herrian % 15era iritsi da), krediturik ematen ez delako eta aurrekontuak doitu direlako.

Gobernuak hartzen ari diren neurriek egoera gero eta gehiago okerragotu dute. Hori dela-eta, ELAK politika aldatzeko exijitu die administrazioei eta gastu soziala handitzeko. Horrela, ekonomia aldatzeko aurrerapausoak emango dira, gizarte-premien estaldura eta enplegua sortzea oinarri harturik.

Krisiak Alemania ere jo du, hau da, jarraitu beharreko eredia omen den herrialdea. Alemaniako ekonomia Euroguneko herrialde gehienek norabideari jarraitzen ari zaio. Hau da, Alemaniako ekonomia % 0,2 uzurtu zen 2011ko azken hiruhilekoan. BPGren urte arteko hazkundea % 2 izan bada ere, joera arestian aipatu ditugun herrialdeen joera berbera da, hau da, behera doa argi eta garbi.

2. Enplegu galera Hego Euskal Herrian

Hego Euskal Herriko jarduera-tasa % 75,6 izan da, 2011ko laugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko hiruhilekoaren antzekoa (0,1 puntu jaitsi da). Adierazle horrek neurtzen du herritarren zer portzentajek daukan enplegua edo herritarren zer portzentaje ari den enplegu bila.

Gizonezkoen jarduera-tasa % 80,5 izan da (0,6 puntu jaitsi da), eta emakumezkoena, berriz, % 68,3 (1,3 puntu igo da).

Europari begira, tasa % 77 izan da 2011ko hirugarren hiruhilekoan (argitaratu den azkena); horrenbestez, 0,4 puntu jaitsi da, aurreko hiruhilekotik aurrera.



Jarduera-tasak Hego Euskal Herrian izan duen bilakaerari dagokionez, jarduera-tasa 1,4 puntu hazi da, 2010eko azken hiruhilekotik hona.

Biztanleria landuna 1.180.400 lagunez osatua egon da urte bukaeran, hau da, aurreko hiruhilekoan baino 16.200 enplegu gutxiago zeuden. % 53,8 gizonetzkoak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 12.500 gutxiago), eta % 461 emakumezkoak, hau da, 544.800 enplegu guztira, (orain dela hiru hilabete baino 3.800 gutxiago).

Sektorez sektore aztertuz gero, 17.000 lagun lehen sektorean aritu dira (biztanleria landunaren % 1,4); 85.800 lagun, eraikuntzan (% 7,3); 267.600, industrian (% 22,7), eta 810.100, zerbitzuetan (% 68,6).

Biztanleria landunaren urteko bilakaerari dagokionean, 21.400 lagunetan egin du behera, eta 1.201.800 izatetatik 1.180.400 izatera igaro da.

Soldatapeko biztanleria 981.500 lagunez osatua egon da; horrek esan nahi du azken hiruhilekoan soldatapeko 19.600 enplegu galdu direla. Guztietatik, % 51,8 (508.400 enplegu) gizonetzkoak izan dira (14.600 gutxiago) eta % 48,2 (473.000) emakumezkoak (5.100 gutxiago).

Azken urteko bilakaerak erakusten du 32.000 enplegu galdu egin direla soldatapeko lagunen artean.

Biztanleria langabea, bestalde, EPAren arabera, 175.900 lagunez osatua egon da 2011ko amaieran, laugarren hiruhilekoan 10.600 lagunetan egin baitu gora. Horrela, 87.400 langabe gizonetzkoak dira (aurreko hiruhilekoan baino 2.600 gehiago), eta 88.500, emakumezkoak (8.000 gehiago). Azken urtebetean, langabe kopurua 25.600 lagunetan hazi da.

Baina EPAk emandako datuen ordez, Enplegu Zerbitzu Publikoaren zerrendetan izena emanik dauden langabeen datuei erreparatu gero, are okerragoak dira. 2012ko otsailean, HEHn 211.274 langabe zeuden erregistraturik; hau da, aurreko hilean baino 5.258 gehiago, eta 2011ko otsailean baino 19.952 gehiago; horrek esan nahi du azken urteko igoera %10,4 izan dela.

Lurralde lurralde ikusita, Nafarroan 51.944 lagun zeuden 2012ko otsaileko zerrendetan izena emanik; hau da, 2011ko otsailean baino % 13,3

gehiago (45.866). EAEn, berriz, enplegu-zerbitzuetako zerrendetan 159.330 lagun daude sartuta; hau da, duela urtebete baino %9,5 gehiago (2011ko otsailean, 145.456 lagun zeuden zerrendetan izena emanik).

Horrela, langabezia-tasa (Enplegu Zerbitzu Publikoak langabeei buruz emandako datuen eta EPAren biztanleria aktiboaren datuen arabera kalkulatu) % 14,2 izan da 2011ko bukaeran; hau da, 2010eko bukaeran baino puntu bat gehiago).

Emakumezkoen langabezia-tasa % 15,4 izan da, 2011ko bukaeran; urtebete lehenago baino 0,8 puntu gehiago. Gizonetzkoena apalagoa da; % 13,1 (azken urtebetean, puntu bat igo da).

Gazteriaren langabezia-tasa % 35,5 izan da 2011ko laugarren hiruhilekoan, urtebetean 5,5 puntu igo ondoren.

27-EBko langabezia-tasa % 11,2 izan da, 2011ko hirugarren hiruhilekoan (argitara eman den azkena). Europako gazteen arteko langabezia-tasa % 20,7 da (HEHkoa baino 14,8 puntu gutxiago); 27-EBko emakumezkoen arteko langabezia-tasa, berriz, % 12 da; hots, HEHkoa baino 3,4 puntu gutxiago.

Behin-behinekotasun tasari dagokionez, % 22,8 izan da, 2011ko laugarren hiruhilekoan. Gizonetzkoen tasa % 19,9 izan da; emakumezkoen tasa, aldiz, % 26,0. Gazteen arteko behin-behinekotasun tasa, bestalde, % 68,8 izan da.

Behin-behinekotasun tasaren bilakaerari erreparatzen badiogu, ohartuko gara azken urtebetean 0,2 puntu jaitsi dela; hau da, 2010eko laugarren hiruhilekoan zuen % 23tik 2011ko hiruhileko berean zuen % 22,8ra igaro dela. Jaitsiera zor zaio aldi baterako kontratudunen artean enplegua ugari galdu izanari, ez baitzaie kontratua luzatu.

Sexuen arabera, gizonen arteko behin-behinekotasun tasa 0,8 puntu jaitsi da denboraldi berean (%20,7tik %19,9ra), eta emakumeen arteko behin-behinekotasun tasa, hala ere, 0,3 puntu igo da (% 25,7tik % 26ra). Alderik handiena gazteen arteko behin-behinekotasunean dago, urtebetean 11,6 puntu igo baita; horrela, 2010eko bukaeran % 57,2 izan zen, eta, 2011ko amaieran, aldiz, % 68,8.

Behin-behinekotasunak 8,4 puntu handiagoa izaten jarraitzen du 27-EBko batez bestekoak baino, %14,4 baita (2011ko hirugarren hiruhilekoan). Europar Batasunean, aldi baterako kontratuak dauden emakumezkoen kopurua

% 14,8 da (HEHn baino 11,2 puntu gutxiago), eta gazteen arteko behin-behinekotasun tasa % 44,3 da (HEHn baino 24,5 puntu gutxiago).

2012ko urtarrilean, 68.993 lan-kontratu sinatu ziren HEHn, eta haietatik % 93,7 aldi baterakoak izan ziren.

Kontratazioak azken 4 urte honetan izan duen bilakaerari erreparatzen badiogu (hau da, krisia hasi zenetik hona), guztira egin diren kontratuen kopurua % 1,1 jaitsi da (2008ko 1.061.504 kontratuetatik 2011ko 944.872etara). Aldi baterako kontratuak, ordea, 2,9 puntu egin dute gora 2008tik hona (2008an, aldi baterako kontratuak % 90,9 izan baitziren, eta, 2011n, aldiz, lan-kontratu guztien % 93,8).

Lan kontratuen bilakaera. HEH, 2008-2011

	2011	2010	2009	2008
Kontratuak	944.872	924.588	874.649	1.061.504
Aldi baterakoak (%)	% 93,8	% 93,0	% 92,3	% 90,9

Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa

3. Enplegu-erregulazioko espedienteak

Hego Euskal Herrian 2011. urtean 2.036 enplegu-erregulazioko expediente baimendu dira, hots, 2010ean onartutakoak (2.430) baino 394 gutxiago..

Espedienteon ondorioak 30.541 langilek nozitu dituzte, alegia 2010ean (zeinetan 42.444 izan baitziren) baino 11.903 gutxiagok. Langile horietatik, 22.429k (kaltetu guztien %73,44ek) behin behineko etendura neurriak jasan zituzten, 2.643langilek (%8,66k) behin betiko irazpen neurriak, eta 5.469ri (guztizkoaren %17,91ri) lanaldia murriztu egin zaie.

Onartutako enplegu-erregulazioko espedienteak eta kaltetutako pertsona kopuruaren garapena ondokoa izan da:

Onartutako enpleu-erregulazioko espedienteak eta kaltetutako pertsona kopurua. HEH (2009-2011)

	2009	2010	2011
Onartutako Esp. kopurua	3.245	2.430	1.997
Kaltetutako pertsona kopurua	80.182	42.444	27.638

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua

Bai onartutako espedienteen kopurua, bai kaltetutako pertsonena, urritu egin dira iazko datuekin alderatuta. Baina ez dugu ahaztu behar lan-merkatuko behin behinekotasunak bidea ematen diela ugazabei, aldi baterako kontratuak berriro nahi ez dituztenean, anpostuokl dohainik suntsitzeko.

4. Inolako diru-sarrerarik gabeko langabeak % 156 igo dira, krisia hasi zenetik

10 langabetatik 4k baino gehiagok ez dute inolako langabezia-prestaziorik jasotzen

Langabezia izena emanda dauden lagunen kopurua % 98,6 igo da Hego Euskal Herrian, 2008ko abuztutik hona (krisia hasi zenetik). 106.368 ziren eta orain, aldiz, 211.274 lagun dira; hau da, langabeziaren zerrendetan 104.906 lagun gehiago daude izena emanik.

Lurralde lurralde zer bilakaera izan den kontuan hartzen badugu, Nafarroan 24.458 langabe zeuden 2008an, eta, 2012ko otsailean, aldiz, 51.944 (27.486 gehiago). EAEn, berriz, langabeziaren zerrendetan, 81.910 langabe zeuden 2008an, eta, 2012ko otsailean, aldiz, 159.330, hau da, 77.420 gehiago.



Erregistratutako langabeziaren bilakaera. HEH, 2008-2012

	Abu. 2008	Ots.2012	Langabezia igoera
Nafarroa	24.458	51.944	27.486
EAE	81.910	159.330	77.420
HEH	106.368	211.274	104.906

Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa

Datuon larritasunari erantsi behar zaio gero eta langabe gehiagori bukatu zaizkiola langabezia-prestazioak.

Zehazki, 2012ko urtarrilean, langabeen % 41,7k ez du inolako langabezia-prestaziorik jaso. % 36,5ek kotizaziopeko prestazioa kobratu dute (egindako kotizazioen arabera), eta % 21,7k kotizaziopekoa ez den prestazio bat jaso dute (laguntzazkoak edo oinarritzko errenta, baina diru gutxiago ematen dute kotizaziopeko prestazioek baino).

Izan ere, diru-sarrerarik gabeko langabeen kopurua % 156,7 igo da, 2008ko abuztutik hona, 33.536tik 86.090era igaro baita, 2012ko urtarrileko datuen arabera, hau da, 52.554 lagun gehiago dira.

Prestaziorik gabeko langabeen bilakaera. HEH, 2008-2012

	Abuztua 2008	Urtarrila 2012	Igoera
HEH	33.536	86.090	52.554

Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa


Horri erantsi behar zaio, prestazioren bat jasotzen dutenen artean, gutxiago direla kotizaziopeko prestazioa kobratzen dutenak; gehiago dira, aldiz, kotizaziopekoa ez den prestazioa jasotzen dutenak (zenbatekoa urriagoa da).

Hau da, 2008an, prestazioren bat kobratzen zutenen % 71,8ak kotizaziopeko prestazio bat jasotzen zuten (eta % 28,2ak, aldiz, laguntzaren bat edo oinarritzko errenta jasotzen zuten). 2012ko urtarrilean, ordea, prestazioren bat jaso dutenen % 62,7ak kotizaziopekoa kobratu dute (eta, %37,3ak, aldiz, bestelakoa).

Inolako prestaziorik jasotzen ez dutenen ehunekoa 10,2 puntu handitu da, krisia hasi zenetik hona, % 31,5etik % 41,7ra igaro baita.

Kotizaziopekoa ez den prestazioren bat jasotzen dutenen ehunekoa 2,4 puntu igo da; kotizaziopekoa, aldiz, 12,7 puntu jaitsi da.

Langabezia-prestazioen bilakaera. HEH, 2008-2012



Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa

Ez dago egoera aldatzeko borondate politikorik

Argi dago gobernuek ez dutela inolako asmorik egoera zuzentzeko, murrizketak eta erreformak egiten jarraitzen baitute, guztiak ere oso kaltegarriak enpleguarentzako eta gizarte-babesarentzako.

Alde horretatik, gogoratu behar da neurri bakar bat bera ere ez dela hartu inolako prestaziorik jasotzen ez duten langabeen egoera hobetzeko.

Egungo politikak sakon baino sakonago aldatu behar dira, eta hori antolaketaren eta mobilizazioaren bidez besterik ez da lortuko.


5. Prezioen igoera

Urte arteko KPI % 2,0 izan da 2012ko otsailean, Espainiar Estatuan, 2011n %2,4 igo ondoren. 27-EBn, bestalde, igoera %2,9koa izan da 2012ko urtarrilean, pasa den urtean % 3,0 izan ondoren.

Ondoko grafikoan, KPIk azken urtebetean izan duen bilakaera ageri da. Urtearen lehen zatian (abuztura arte) prezioak Estatuan gehiago igo dira 27-EBn baino. Urtearen azken zatian, berriz, Europako prezioak igo egin dira; Estatuko KPI, berriz, jaisten joan da.

Alde horretatik, nabarmendu behar da Estatuko KPIren bilakaera Europakoa baino aldakorragoa dela. Izan ere, Estatuko prezioak, urte hasieran, % 3,3 igo ziren, eta % 2,4 abenduan (1,3 puntu gutxiago); 27-EBn, aldiz, urtarrilean prezioak % 2,7 igo ziren, eta, urte bukaeran, berriz, % 3,0 (0,3 puntu gehiago).

KPIren Urte arteko igoerak (%). 27-UB, Espainiar EstatuA, 2011-2012



Iturria: INE, Eurostat



NBEko Garapen eta Merkataritzako Konferentziak aurkeztutako "Garapena eta Merkataritzari buruzko Txostena, 2011" agirian baieztatzen dutenez munduko ekonomia hondamendirako bidean doa Gobernuak murrizketa politikak ezartzen jarraitzen badute. Txostenaren arabera laneko irabaziak herrialde garatu eta garatze bidean dauden herrialdeen eragile garrantzitsuak dira. Ekonomiaren hazkunderako eta errekupeziarako nahitaezkoztat jotzen du lansarien handitzea. Horrez gain ez du uste murrizketek zorpetze publikoan eta herrialdeetako ekonomian eragin positiborik izango duenik, murrizketek ez baitute sarreren atalean eraginik izaten.

Lan ildo bera jarraituz, NBEko Gizarte eta Gai Ekonomikoen Sailak, munduko ekonomia atzeraldi berri baten aurrean kokatzen du jarraian laburbiltzen dugun ikerketa baten arabera:

Erronkarik premiazkoenak dira, batetik, enpleguaren krisiari aurre egitea, eta, bestetik, hazkunde ekonomikoaren jaitziera etengabea galaraztea; herrialde garatuetan, batez ere.

Ekonomia garatuak azkar hoztu izana euroguneko herrialdeen zorraren krisiaren eragilea eta ondorioa izan da, bai eta beste leku batzuetako arazo fiskalen arazoaren eragilea eta ondorioa ere. 2011n, izan ere, zor publikoaren arazok okerrera egin dute Europako hainbat herrialdetan, eta, bankuen sektorea gero eta okerrago dago. Txosten honen arabera, Europako hainbat gobernuak austeritatearen alde hartutako neurriek are gehiago ahulduko dute hazkunde, bai eta enplegu-perspektibak ere.

Agertoki baikor samar batean, munduko produktu gordina (MPG) % 2,6 hazi liteke 2012an, eta, % 3,2, berriz, 2013an. Egoerak, ordea, salatzen digu porrot egin dutela Europan eta Amerikako Estatu Batuetan egiten ari diren politikek enpleguaren eta zor publikoaren arazoak konpontzeko, eta finantza-sektorea oso ahul

dagoela; horrexek, beraz, munduko ekonomia berriro ere atzeraldian sarraraziko du.

Herrialde garatu askotako ekonomia gaizki dago, eta hori traba handia da munduko ekonomiarentzako; garapen bidean dauden herrialdeek, gainera, oraindik ere ekonomia garatuen krisiaren eragin kaltegarria jasotzen jarraitzen dute.

1. Enpleguaren mundu krisia

Langabezia-tasa altua traba handia da ekonomia herrialderik garatuenetan bere onera etor dadin. Eurostat eta ELGE (OCDE) erakundeek emandako datuen eta kalkuluen arabera, beheko taulan agertzen dena da herrialde garatuetako langabezia-tasaren bilakaera 2003 eta 2013 artean.

2011ko datuak kontuan hartuta, ELGEko ezein estatuk ez du Espainiar Estatuaren langabezia-tasa gainditzen. Datuak munduko gainerako herrialdeetara zabaltzen baditugu, ikusten dugu Bosnia Herzegovinak, Mazedoniako Errepublikak, Hegoafrikak eta Palestinako Lurralde Okupatuek bakarrik gainditzen dutela Espainiar Estatuaren % 20.8ko tasa.

Bestalde, kontuan hartu behar da ekonomia askotan txarragoa dela enpleguaren egungo egoera langabeziari buruzko taula ofizialetan

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Ekonomia garatuak	5.8	6.1	8.4	8.8	8.6	8.5	8.3
Europar Batasuna	7.3	7.1	9.0	9.8	9.6	9.6	9.3
EB-15	7.2	7.2	9.1	9.6	9.5	9.6	9.4
Austria	4.4	3.8	4.8	4.4	4.1	4.3	4.2
Belgika	7.5	7.0	7.9	8.3	7.3	8.2	7.7
Danimarka	3.8	3.4	6.1	7.4	7.5	7.3	7.1
Finlandia	6.9	6.4	8.2	8.4	7.9	7.4	7.0
Frantses Estatuak	8.4	7.8	9.5	9.8	9.8	9.9	9.6
Alemania	8.8	7.6	7.7	7.1	6.2	6.0	6.0
Grezia	8.3	7.7	9.5	12.6	14.8	17.4	17.6
Irlanda	4.6	6.3	11.9	13.7	14.3	14.5	14.9
Italia	6.1	6.8	7.8	8.4	8.1	8.5	8.3
Herbehereak	3.6	3.1	3.7	4.5	4.2	4.2	4.0
Portugal	8.9	8.5	10.6	12.0	12.5	13.4	14.0
Espainiar Estatuak	8.3	11.4	18.0	20.1	20.8	20.5	19.9
Erresuma Batua	5.3	5.6	7.6	7.8	8.0	8.5	8.1
EBko kide berriak	7.6	6.5	8.4	10.6	10.2	9.6	9.0
Europako beste batzuk	3.1	2.9	3.8	4.0	4.2	4.4	4.8

adierazitakoa baino. Izan ere, gero eta langile gehiago dago lanik gabe halako denboraldi luze batean, eta halakoek lana bilatzeari uzten diote; estatistiketarik kanpo geratzen dira, beraz. Langabezia egoera luzeak ondorio nabarmen eta kaltegarriak sortzen ditu hala lana galdu duen jendearen artean nola ekonomian. Izan ere, langabeziaren iraupena gero eta luzeagoa izan ahala, langabeek beren trebetasunak are gehiago galtzen dituzte, eta, horren ondorioz, aldi baterako lanposturik aurkitzen dutenen diru-sarrerek behera egiten dute.

Gazteen arteko langabezia, bestalde, benetan kontu kezagarria da oso. Egia da ekonomia ongi dagoenean ere gazte langabeen tasa beste adin-tarte batzuetan baino handiagoa izan ohi dela, baina 2007an jadanik, gazte langabeziaren munduko tasa % 13 ingurura igo zen, eta % 18 ingurura, 2011ko lehen hiruhilekoan. Egoerak larri izaten jarraitzen du ekonomia garatu batzuetan; Espainiar Estatuan, adibidez, non gazte langileen % 48 langabezia baitago.

Kalkuluen arabera, 2013an, enplegu-defizita 71 milioi ingurukoa izango da, eta, horietatik, 17 milioi herrialde garatuetan egongo dira. Aurrera begira, hazkunde ekonomikoa, iragarritako erritmoaren arabera baldin bada, enplegu-tasak ez dira krisia iritsi aurreko mailetara itzuliko, ezta 2015. urtean ere.

Langabezia-tasa altuak bere horretan irauteak soldataren igoera geldiarazi du; beraz, tasa altu horrek kontsumitzaileen eskaria geldiarazi du mundu osoan, eta, horren ondorioz, berankortasunak gora egin du hipotekak ordaintzerakoan. Horri gehitzen badiogu ekonomia garatuetan zeinen ahul dagoen finantza-sektorea, are gehiago jaisten da inbertsio-eskaria, eta, are gehiago jaitsi ere enpresaburuen konfiantza, eta, horren ondorioz, susperraldi ekonomikoa atzeratzen da.

2. Zalantzak eta arriskuak

NBEren txostenaren arabera, hona hemen zein den munduko ekonomiaren perspektibentzako arriskurik gorriena, 2012-2013. urteetarako: hots, politikarien porrota, dela enplegu-krisiari aurre egiterakoan, dela zor publikoaren eta finantza-

sektorearen ahuleziaren arazoak areagotzea eragozterakoan, eta horren ondorioa da munduko ekonomia berriz ere atzeraldian sartuko dela; berehalakoan, gainera.

Lau ahulezia-faktore daude, eta laurak ere elkarri indarra ematen diote, eta laurak ere agertu dira: hots, zor publikoaren krisia, banku-sektore hauskorrak, eskari ahula, eta, azkenik, sare politikoek eta gabezia instituzionalek sorrarazitako paralisi politikoa.

Europar hartu diren neurriak ez dira egokiak herrialdeen zorraren krisia konpontzeko. Neurriak ez dute finantza-merkatuen urduritasuna baretu, eta, horrek eraginda, igo egiten dira zor publikoen jaulkipen berrien finantzaketa-kosteak. Herrialdeen zorraren krisiak ekonomia handiak kutsatuko balitu, kreditu-krisia eragingo luke mundu osoan, eta finantza-merkatuak gainbehera etorriko liriateke. Hau da, 2008ko egoera berbera ikusiko genuke; hots, Lehman Brothers erakundeak porrot egin zuenean bezalakoa. Finantza-sistemak holako egoeran lurra joko balu, atzeraldi sakona sortuko litzateke, ez soilik herrialdeen zorraren krisiak jota dauden ekonomietan, euroguneko gainerako ekonomia handietan ere baizik; eta atzeraldia 2008ko bukaeraren eta 2009ko hasieraren tamainakoa izanen litzateke.

Litekeena da Europako eta Amerikako Estatu Batuetako atzeraldi bat nahikoa ez izatea mundu osoko atzeraldia eragiteko, baina aski litzateke aipatu ekonomiak, denak batera, kolapsatzeko. Hori gogoan hartuta, Nazio Batuek iragarritako agertoki ezkorren arabera, 2012rako, Europar Batasuneko ekonomia % 1,5 atzeratuko litzateke, eta Amerikako Estatu Batuetakoa, berriz, % 0,8.

Munduko ekonomian bere horretan diraute kanpo-desoreka handiek, eta hori kezagarria da politika ekonomikorako. Praktikan, 2010-2011 urteetan, ekonomia nagusien kanpo-desoreka horiek halako maila batean egonkortu ziren; hots, krisiaren aurretik ikusitako gehienezko mailen erdiaren inguruan (BPGren % gisa). Azpimarratu behar da, dena den, berronaka globala ez litzatekeela lortu behar hazkundearen lepotik, baizik eta hazkundea bera sustatuz eta lana sortzea bultzatuz.



3. Politika ekonomikoaren erronkak

Arestian azaldu ditugun arriskuak gaindituko badira, politika-erronka izugarriak jarri behar dira mahai gainean. Epe laburrera, esaterako, euroguneko herrialdeek hazkunde apalaren edo hazkunderik ezaren tranpari aurre egin beharko diote, ez baitute premiazko neurririk hartu nahi. Europako herrialde batzuek, izan ere, ez dute inola ere ateka gaiztoenean dauden herrialdeak erreskatatu nahi, xahutzaile hutsak direlakoan; eta behartu egiten dituzte austeritate-neurri zorrotzagoak hartzera aurrekontuetan, eta, horrek, jakina, hazkunde txikiagoa eragiteaz gain, gizartean haserre handiagoa ere sorraraziko du. Oraingoan, G-20ren programa politikoak agertoki bat besterik ez du eskaintzen estualditik ateratzeko. Baina, susperraldi ekonomikoa sendoagoa, orekatuagoa eta iraunkorragoa izango bada, irismen handiagoko ekintzak pentsatu beharko dira; nazioartean koordinatutakoak, gainera.

Lehenik eta behin, susperraldi ekonomiko ahula ikusita eta langabezia-tasa altuei erreparatuta, herrialde garatuek bereziki, ez lukete garaia baino lehen austeritatea aurrekontuetara eraman behar; bestela, holako austeritate-politikak hartzen badira, balantze publikoak, hobetu beharrean, are gehiago larriagotu egingo dira. Era berean, finantzak bermatzeko mekanismoak gehiago sendotu beharko dira, merkatuaren ziurgabetasunik ezari aurre egiteko, gero eta handiagoa baita; horrela, era berean, murriztu egingo lirateke zor publikoaren baitan dauden arriskuak.

Bigarren erronka, berriz, hau da: esparru fiskal egokia duten herrialdeen ekonomia sustatzeko neurriak koordinaziopean hartu behar dira, betiere munduko berronka bilatu nahi izatearekin bat. Lehenetsun nagusiak eskaria bultzatzea izan beharko luke, langabezia murrizteko; hartara, inbertsio publikoa sustatu behar da, eta enplegua era zuzenagoan sortu. Funtsezko politika-erreformek eta pizgarri global koordinatuak herrialdeen zorraren konponbide antolatua ekarriko lukete, bai eta egituraren behar diren aldaketak ere, enplegua garapen iraunkorraren baitan sendo hazteko.

Hirugarren erronka aurrekontu-politika birpentsatzea izango da, enpleguan duen eragina handiagoa izan dadin, eta, era berean, egiturazko aldaketa sustatzea, hazkunde ekonomikoa iraunkorragoa izan dadin. Orain arte, herrialde garatuek gehienbat diru-sarrerak sustatzeko neurriak hartu dituzte, eta neurri horietan, zerga bidezko diru-itzultzeak gehiago izan dira emandako pizgarrien erdia baino. Baina kontuan hartu behar da zuzeneko gastu publikoak eragin handiagoak izaten dituela enpleguan.

Laugarren erronka da zerga-pizgarrien eta diru-pizgarrien artean sinergia handiagoa aurkitzea. Hartara, akordioa egin beharko da nazioartean, finantza-sektorea sakonago erreformatzeko.

NBEko Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Sailak bosgarren erronka bat ere azpimarratu du; hots, behar adina baliabide izatea garapen bidean dauden herrialdeentzako. Baliabide horiek ezinbestekoak baitira, herrialde horiek aurrera azkarrago jo dezaten, Milurtekoko Garapen Helburuak betetze aldera.

Hileko 2. puntako gaia: Lege laboralen eta negoziazio kolektiboaren erreforma

Raxoiren gobernuak joan den ostiralean onartu zuen iragarritako lege laboralen eta negoziazio kolektiboaren erreforma; testua BOEn otsailaren 11n argitaratu da, "Lan-merkatuaren erreformarako neurri urgenteen Errege-Lege Dekretua" izenez.

Jokabide hau zeharo antidemokratikoa da, legea aurrez eztabaidarik eta berari buruzko informaziorik gabe jarriko baita indarrean. PPren gobernuak honela Zapaterok behin eta berriz jokatu zuen moduan egin du. Raxoik propio edukiak ezkutatu egin ditu; hala islatzen dute bere adierazpenek ("erreforma greba orokor bat kostako zait"), edota Ekonomia ministroak esandakoak (Luis de Guindosek Europako Batzordeko Ekonomia komisarioari aurreratu zion erreforma "zeharo oldarkorra" izango zela).

Hilabeteko epean Errege-Lege Dekretua espainiar Parlamentuak berretsi behar du, eta hau bermatuta dago PPren gehiengo absolutua medio. Gainera, iragarri dutenez erreforma legegai gisa tramitatuko da, eta horrek are gehiago okertzea eragin dezake, zuzenketen ondorioz.

1. Erreformaren edukiak

Onartu den erreformak eskubide laboralen murrizketa latza dakar. Etengabeko erreforma-prozesu batean beste urrats bat da (patronalak dagoeneko esan du gehiago nahi duela). Lan arloko esparruetan aldaketa handiak sartzen dira: kontratuak, kaleratzea, enpresa batek lanean ari direnekin egin dezaketena edo negoziazio kolektiboaren balioa. Hona punturik nabarmenenak:

a) Kaleratzea erraztu eta merkatu egiten da hainbat modutan

Enpresa dela kausa egiten diren kaleratzeen inguruko arauak (kaleratze objektiboak eta kolektiboak) berriz aldatu dituzte; enpresentzako kostua askoz txikiagoa izango da. Hain zuzen, orain arteko erreformek zergati enpresariala duten kaleratzeak egiteko arrazoiak ugaltu dituzte. Adibidez, Zapateroren azken erreformaren ondorioz zergati enpresarialak dituzten kaleratzeak (zergati ekonomikoak, teknikoak,

antolakuntzakoak edo produktiboak) 2010eko %34tik 2011ko %44ra gehitu ziren.

Raxoiren erreformarekin langileek duten babesera erabat gutxitzen da. Izan ere, kaleratzea hainbat bidetatik erraztu eta merkatzen du:

- Zergati enpresarialengatik egindako kaleratze bat bidezkoa izan dadin zergati ekonomikoak gehitzen dira. Aurrerantzean aski izango da salmenten jaitsiera iraunkorra (eta, horrenbestez, kaleratzea objektiboa) dela uste izateko "hiru hiruhilekotan jarraian" gertatzea. Hau bidegabekeria da, baina gainera pikarokeriara bultzatzen du, enpresek kontuak manipula ditzaten. Zergati ekonomikoak dituzten kaleratzeetan zein zergati tekniko, organizatibo edo produktiboen ondorioz erabakitakoetan, enpresek frogatu beharrekoa asko lausotzen da eta, batik bat, ez da beharrezkoa izango zergati horien ondorioz enpresa edo enplegua arriskutan egotea, ezta justifikatzerik ere kaleratzeek enpresaren lehiarako gaitasuna hobetuko dutela. Jakina, lan egindako urteko 20 eguneko kaleratzeak gehitu egingo dira, gehienez 12 hilabeteko mugarekin gainera.
- Kaleratze bidegabearen kalteordaina murriztuko da: kaleratze bat bidegabera jotzen bada, kaleratutako langileari emango zaion kalteordaina, erreforma indarrean sartu denetik igarotako denboraren arabera, urteko 33 egun izango da. Gehienezko muga, berriz, 24 hilabete. Erreforma berriaren aurretik ohiko kontratu mugagabe bat dutenentzat otsailaren 11rainoko denbora urteko 45 egun izango dira. Kalkulua eginda 24 hilabetetik gorako kopurua lortuz gero, hori izango da gehienezko muga (hots, erreforma onartu denetik igarotako denbora ez da zenbatzen), eta inoiz ezin da 42 hilabetetik gorakoa izan.
- Langileak galdu egingo du kaleratzearen eta hau bidegabe jotzen duen epaiaren arteko soldata jasotzeko eskubidea (tramitazio soldatak). Orain soldata hori kasu batean bakarrik ordainduko da, enpresarioak langilea berriz onartzen duenean, alegia.



- Enpresarioak ezin izango du kaleratu jakinik edo aitortuta kaleratze hori bidegabea dela ("express kaleratzea").
- Absentismoaren aitzakian langile bat modu 'objektiboan' kaleratzeko ezabatu egiten dira orain arte kaleratuaren ausentziaz gainera enpresa mailan eskatzen ziren gutxieneko absentismo portzentajeak; hots, kaleratze mota hau errazagoa izango da.
- Kaleratze kolektiboaren prozedurei dagokienez (enplegu erregulazio espediente edo EEE bidezkoak), aldeztu aurretiko baimen administratiboa ezabatu dute. EEE berrietan arau berria aplikatuko da: kontsulta aldia mantentzen da, gehienez 30 egun naturalez, eta 50 langiletik behera duten enpresetan 15 egunez. Kontsulta aldia igarota akordiorik ez badago, enpresak iraungitzeari buruz hartutako erabakia jakinaraziko du, baita kaleratzeak zein baldintzatan gauzatuko dituen ere. Enpresak iraungitze-EEEa aplikatzea erabakiz gero, gehienez 20 eguneko epea dago enpresak alde bakarretik hartutako erabakiaren aurka egiteko edo demanda sartzeko.
- Kaleratze objektiboaren aplikazioa arlo publikoan. Arlo publikoko erakunde, organismo eta entitateek lan-harremanak iraungi arazi ahal izango dituzte zergati ekonomiko, tekniko, antolakuntzazko edo produktiboak argudiatuz.

b) Negoziazio kolektiborako eskubidea ahultzeko da

Zapateroren negoziazio kolektiboko azken erreformak zentralizazioa eragin zuen, eta hitzarmenak berritzeko epea mugatu egiten zuen; ondoren arbitrajea ezartzen zen. Raxoiren erreformak urrats berriak egiten ditu, eta egoera zeharo okertzen du:

- Hitzarmenen ultraaktibitatea bi urtera mugatzen da. Hitzarmen kolektiboaren indarraldia amaitu eta bi urtera beste bat adosten ez bada, edo laudo arbitralik ez badago, hitzarmena iraungi egingo da, kontrako itunik ezean, eta goragoko esparruko hitzarmena aplikatuko da,

halakorik balego. Orain arte, negoziazioan adostasunik iristen ez bazen hitzarmenaren ultraaktibitatea mugarik gabe sor zitekeen; orain hori soilik aldeek hitzartuz gero izango da (hots, posible da, baina inondik ez errealista).

- Zenbait gaitan enpresa-hitzarmenak erabateko lehentasuna du sektore-hitzarmenarekiko, eta zenbait gaitan baldintza apalagoak ezar ditzake. Enpresa-hitzarmen batean ezarritako baldintzek lehentasuna izango dute sektore-hitzarmenekoekiko, funtsezko gaiei dagokienez: oinarrizko soldataren eta osagarrien zenbatekoa, aparteko orduen ordain edo konpentsazioa eta txandakako lanaren berariazko ordainsaria, lanaldiaren ordutegi eta banaketa, txandakako lanaren erregimena eta oporraldien urteko planifikazioa. Zapateroren erreforman ez bezala, negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko akordio eta hitzarmen kolektiboak, edozein esparrukoak direla ere, ez dute atal honetan aipatzen den lehentasunik izango aplikatzerakoan.
- Enpresa hitzarmenetik salbuetsita geratzeko aukera errazten da. Orain salbuespena dagokion hitzarmen kolektiboari dagokio, "bera sektorekoa edo enpresakoa dela ere". Lehenago enpresatik gorako esparru batekiko hitzarmena errespetatu behar zuen. Eta aurreikusi den prozeduran, aurrez arbitrajearen menpe jarri edo arbitrajea amaitzen da. Hots, enpresak hitzarmena ez aplikatzeko asmoa badu langileekin adostu behar du ala arbitraje bat behar dezake azken kasuan. Orain arte, posible zen lanbidearteko akordioek desadostasuna ez konpontzea. Orain aukera bat gehitzen dute: "aldeetako edozeinek" desadostasuna konpontzeko jo dezake Hitzarmen Kolektiboaren Kontsulta-Batzorde Nazionalera, edota dagokion erkidego autonomiko mailako organora; hauek ebatzi ahal izango dute, organoak hartutako erabakiz edo berak izendatutako arbitro baten bitartez.

c) Malgutasun laborala enpresaren nahietara areagotzen da

Erreforma honetan berriro aldatu dute "enpresaren antolakuntza"ri dagokion esparrua; hain zuzen, enpresari erabakitzeko ahalmen handiagoa ematen diote. Adibidez,

- Mugikortasun funtzionala errazten da; orain arte zeuden mugak ezabatzen dira.
- Mugikortasun geografikoa ere aiseago erabaki ahal izango da; arrazoibidea errazagoa eta lausoagoa egingo dute, zergatiak lehiakortasuna, produktibitatea edo enpresa baitako antolakuntza teknikoa zein lanarena direlarik. Gainera, lekualdatzea gauzatzeko erabakia 6 hilabete arteko epean atzeratzeko lan-agintaritzaren ahalmena ezabatzen da.
- Lan-baldintzen funtsezko aldaketa erraztu egingo da. Lan-baldintzen aldaketa sakona erabakitzeko aukera ematen duten zergatiak -kontratu, hitzarmen edota itun kolektiboan jasota daudela ere- zeharo erlatibo bihurtuko dira, eta enpresak nahi badu praktikan askoz errazagoa izango da. Gainera, lan-baldintzen funtsezko aldaketak sartzeko gaien artean "soldataren zenbatekoa" ere gehitu dute.

d) Aldaketak kontratuetan

Erreforma berri honek kontratuak are prekarioago egiten ditu, eta enpresak diruz laguntzen jarraitzen ditu:

Formaziorako kontratua.

- Formazio-kontratuaren gehienezko iraupena 2 urtetik 3ra luzatzen da. Aldi baterako, gainera, langabezia tasa %15etik behera jaisten ez den artean, kontratua 30 urte bitarteko langileekin egin ahal izango da (orain arte legezko gehienezko muga 25 urtetan zegoen).
- Formazio kontratua birritan egin liteke pertsona berarekin, jarduera laborala edo beharra desberdina bada. Formazio-kontratua iraungiz gero, lehenago ez zegoen beste bat egiteko aukerarik.

Lanaldi Partzialeko Kontratuan aldaketak

- Indarrean sartu berria den erreformak lanaldi partzialeko kontratua dutenei aparteko orduak sartzeko aukera ematen die; hau orain arte berriaz debekatuta zegoen.

Ekintzaileei laguntzeko kontratu mugagabea sortzen da

- Kontratu mugagabe mota berri hau 50 langile arteko enpresetarako izango da.
- Kontratu honetan proba-epea urtebetekoa izango da, hots, kontratua egin eta lehen urtebetean kaleratzea libre eta doakoa izango da. Langileak soldatarekin batera langabezia prestazioaren %25a jaso ahal izango du.
- Laguntza publikoak izango ditu: kenkari fiskalak enpresarentzat, eta enpresaren konturako gizarte-kotizazioetan onurak hiru urtez, urtean 1.000 eta 1.500 euro bitartean, kolektiboan arabera.

ABLEen definizioa aldatu egingo da

Enplegu-agentzia pribatu gisa lan egin ahal dezaten.

2. ELAren iritzia

1. Raxoiren gobernuak egin duen lan-legediaren eta negoziatio kolektiboaren erreforma eskubide laboralei egindako eraso latza da. Enpresarioek ez dute inongo sakrifizioerik egin behar. Gobernuak lan-harremanetako desoreka areagotzen du, indartsuaren aldera. Enpresarioei erabakitzeko ahalmen handiagoa ematen die, eta alderik ahulena, langileak, gero eta indargeago uzten du, hauei eskubideak moztuta. Zuzenbide laboralaren funtzio orekatzailea txikitzen ari dira erreformak egin ahala.
2. Erreformak langabezia eta pobrezia gehitzea ekarriko du. Oraingoan ere enplegua sortzearen aitzakiaz baliatzen dira halako erreforma gogorra zuzitzeko. Haatik, begibistakoa da kaleratzea erraztu eta merkatzeak langabezia gehituko duela.



Nabarmena den bezalaxe erabaki hauen guztien helburua defentsa kolektiboa ahultzea dela, eta langileak gero eta lan-baldintza okerragoak onar ditzaten makurraraztea. Soldatak gero eta gehiago murriztu behar dira, enpresei xantaia egiteko aukera eman eta kaleratzeko mehatxua erabil dezaten, mugikortasuna areagotu, hitzarmenetan ezarritako baldintzak ez ezartzea, etab. Hots, langileak gero eta txiroago egin, gutxiengo batek aberastasunaren zati handiagoa beregana ahal dezan.

3. Botere ekonomikoaren honelako erasorik sekula ikusi gabeak geunden; krisiaz baliatzen da ahal duen esparru guztietan bere posizioa hobetzeko. Botere politikoa bere esanetara dago erabat, herritar gehienek interesa baztertu duelarik, are kolektiborik ahulen eta prekarioenena (emakume, gazte, immigrante, etab.). Klase politikoaren ordezkariak krisia egunez egun nabarmentzen ari da. Norentzat ari dira agintzen? Zer dela-eta erabiltzen dute gezurra, propaganda eta eztabaida eza ohiko tresna gisa?
4. Negoziazio kolektiboa mamirik gabe uzten dute. Denboraren tresna, garrantzi handikoa, kendu egin digute. Ultraaktibitatea bi urteren buruan iraungitzea erabateko perbertsioa da, denbora iragatea bera enpresarioarentzako indar bilakatzen baita (arbitrajeari edota hitzarmena desagertzeari lehentasuna ematen zaio). Arbitrajea ezartzeak negoziazioan immobilismoa indartzen du, arbitroaren etorkizuneko erabakia etorri bitartean beste aldeari mesederik ez egite aldera.
5. Erreforma honen edukia CCOOek eta UGTk CEOE eta CEPYMEekin sinatutako akordioarekin bat dator. Sindikatuok 2012, 2013 eta 2014rako erosteko ahalmenean galera handia onartzen dute, baita enpresarioaren erabakiz malgutasun laborala gehitzea ere. Akordio horrek zein erreformak langile-klasea txirotu eta lan-harremanetan enpresen boterea areagotzen dute. Juan Rosell CEOEko presidentek argi adierazi du: Erreforma honetarako "oso lagungarria

izan da urtarrilean gizarte-eragileok soldaten moderazioari buruz iritsi genuen akordioak. Sindikatuek atek ireki eta urrats hori egitea ahalbidetu zuten". ELAren iritziz ez erreformak, ez akordio horrek, enpleguaren onerako ez dute ezer ekarriko. Egiten ari diren murrizketa eta erreformei soldata jaitsiera gehituz gero, soldaten galera onartu ez ezik enplegua suntsitzen da. Sindikatua batek horrelakorik ez luke inoiz onartu beharko.

6. CCOOek eta UGTk hautua egin dute, egoera latz honetan: ipar sindikala galdu dute, eta ez dira sinesgarriak, horren erabaki larriak babestuta. Lehengo ituna egin eta erreformari kargu hartzeak ez du ez bururik, ez hankarik, biak lotuta baitaude. Erreformari egindako kritika itxurazkoa da, ez baitaude bat ere eroso: Ekaitz honetan ezin diote "elkarrizketa sozial" izeneko horri eutsi. Itxurak egiten dituzte, baina ezer ez hausteko moduan. Gobernuak badaki, eta horregatik sartu ditu erreforman lanbide-heziketarekin zerikusia duten atal batzuk; antza, gizarte-eragileen egitekoa "indartu" nahi du. Botere politikoak sail honen finantzaketa lotsarik gabe erabiltzen du, eta horrek ematen dio horren erreforma lazgarria ezartzeko aukera, bai baitaiki bi sindikatu espainiar handiek ez diotela aurre egingo.
7. Lan-legeen eta negoziazio kolektiboaren erreformak nabarmen utzi ditu Confebasken Mahaiko "negoziazio" horretan parte hartu dutenak. Confebaskekin izandako lehen hartuemanen ostean ELAk ez zuen joan nahi izan, helburua honakoa baitzen: negoziazio kolektiboaren egitura jorratzea (Raxoiren erreforma ondoren aplikatzeko inongo bermerik gabe, Confebaskek aurreratu zigan lege) eta malgutasun laborala legeetatik haratago handitzea, indarrean ziren erreformak erreforma. Raxoik ezarritako erreformaren edukia agerian utzi ditu Mahai hartan bildu direnak. Erreformak enpresei are tresna gehiago ematen die salbuespenak alde bakarreko erabakiz ezartzeko, edo arbitrajeak behartzeko, bederen (orain hobeto ulertzen da Confebaskek zergatik

onartzen zuen negoziazio epea amaituta borondatezko arbitrajera jotzea, arbitrajerik ezean, hitzarmenik gabe geratzen zara). Patronalak erreforma honekin nahi zuen gutzia lortu du, eta bazekien Raxoiek zer asmo zuen. CEOEko presidentek, erreforma aurrez ezagutzen ote zuen galdetu ziotenean, hau erantzun zuen: "Nik beti denekin hitz egiten dut". Hots, ezaguna zuen. Patronalak bazekien zer zetorren, eta Confedebak bere Mahaiarekin bake soziala lortu nahi zuen, bere aldeko edukiez gainera.

3. ELAren alternatiba

ELAren alternatiba honakoa da:

1. Aplikatzen ari diren politikak goitik behera aldatu behar dira. Lan eta negoziazio kolektibo-esparruan eskubide laboralak murriztu eta enpresen erabakitzeko ahalmena handitu ordez, kontrako norabidean joan behar da: Berme handiagoak, enplegu gehiago eta kalitate hobea duten lanpostuak. Azken urteetako erreformetan atzera egin behar da.
2. Enpresak sindikalizatzea. Erreforma honek aurrekoen ildoak sakontzen du eta enpresari erraztasun handiagoa ematen dio lan-baldintzak alde bakarreko erabakiz ezar ditzan. Enpresa baitako botere sindikala indartu ezean ezin izango da lan-baldintzen gainbehera geldiarazi, eta are gutxiago baldintza horiek hobetu. Langile-klasearen indarra indar kolektiboa da. ELAk onartu egingo du erronka hau. Indefentsioa hedatzearen eta banakako irtenbideak bilatzera bultzatzea nahi gaituen estrategiak alternatiba bakarra du: langileen defentsa kolektiboa indartzea. Enplegu duina soilik enpresa jakin batzutan izango da: langileok indartsu gauden tokietan, antolatzen garenetan eta borroka egiten dugun horietan. Inork ez digu oparirik emango, baina ez gaude borrokarik gabe amore emateko prest.
3. Mobilizazioa. Argi dago eraso hauei erantzun gogorra eman behar zaiela. Erasoak, gobernuak berak onartu duenez, latza da. Eta murrizketa gehiago iragarri dituzte

(esaterako, Raxoiek martxoan aurkeztuko dituen 2012rako aurrekontuetan). Otsailaren 25ean Bilbon egin zen manifestazioa, hainbat sindikatu eta gizarte-mugimenduk deitua, erreforma honen salaketa ozena izan behar da, eta politikak erabat aldatu daitezela exijitzeko oihua, deialdiko manifestuak zioen moduan. ELA prest dago dagoeneko eratu den espazio honetan aurrera egiteko, mobilizazio gehiago deituz, ezer baztertu gabe. Batetik, lan-legeen eta negoziazio kolektiboaren erreforman sartu dituzten neurri latzak salatzeko, eta bestetik, eskubide laborala eta sozialen aldeko politikak eskatzeko.